

“Ezusteaz betetako istorioa” dakar Alberto Ladronnek bere lan berrian

'AROTZAREN ESQUAK', IDAZLEAREN LAUGARREN ELEBERRIA, 2. MUNDU GERRAN GIROTUTA DAGO

Irakurleari bakerik ematen ez dion “suspensezko nobela bizi eta ekintzaz betea” dela azaltzen du egile nafarrak

IBAI FERNANDEZ

IRUÑEA. Ane Duhalde, bolada txarra pasatzen ari den 23 urteko nafarra da. Aitona hil egin da eta, herentzian, Urraulgoitin dagoen baserria jaso du. Aitonaren etxea hobe ezagutzeko inguruak miatzen ari dela gizon baten hezurak aurkitzen ditu Anek. Aurkitutakoa aztertzean, gizon horren hiltzailea bere aitona izan zela ikusten du, baina ez hori bakarrik, beste lagun batzuen hiltzailea ere izan daiteke. Guztiei eskuak moztu dizkiete zerra batekin. Hortik aurrera ikerketa bat hasiko du Anek, bere garaiari arotzaren kasuaz arduratu zen frantziar polizia erretiratu baten laguntzarekin.

Horrela hasten da *Arotzaren eskuak*, Alberto Ladrón Aranaren laugarren eleberria. “Suspensezko nobela” bat dela azaldu zuen aurkezpenean idazle nafarrak, “ezusteaz betetako ibilbide bat”, alegia. “Nobela bizia eta ekintzaz betea egin nahi nuen genero horren maitaleak harrapatzeko. Nire helburua irakurleari bakerik ez ematea zen, obraren hasieran harrapatu eta amaiera aldean ustekabe bat emateko. Niretzat garrantzi handia dute nobelaren amaierak, eta honek ustekabeko amaiera du. Kalitatezko entretenimendua eskaini nahi dut”.

Eleberriaren ezaugarri horretan ere indar berezia egin zuen Xabier Mendiguren editore eta idazleak. Ladronek “irakurlearen jakin-mina piztu” nahi duela nabarmendu zuen: “Irakurlea lepotik eramaten du hasieratik amaieraraino. Baina ez behartuta, irakurleak ez baitu burua liburutik altxatu nahi. Eta hori oso eskergarria da”.

Baina dema ez da bat ere erraza. Asko dira helburua lortu eta istorioaren amaieran suspensea galtzen duten nobelak. Hala ere Ladronek badauka horri aurre egi-

teko sekretu bat: “Nire ustez kontrakoa egin behar da, amaieran apustu hori goratu, irakurleari hor-dago bat botaz”. Horrek, noski, irakurleak amaiera beharrezkoa baino lehen asmatzearen arriskua dauka, baina idazlearen ustez, pena merezi du. “Irakurlearen oniritzia irabaziko dugu horrela”.

DOKUMENTAZIOA *Eguzki beltzaren sekretua* nobelaren bezala, honetan ere Bigarren Mundu Gerran girotu du istorioa. Hala ere, honek ez duela hainbeste lanik eman aitortu zuen Ladronek, bere hirugarren eleberrian “garai oso bat” berreskuratu behar izan baitzuen. Hori bai, hainbat ikerketa egin behar izan ditu idazle nafarrak alde teknikoak argitzea, abokatu edo medikuekin elkarrizketan batik bat. Hala ere, eta kontu historikoak ohiko historia liburuetatik atera baditu ere, laguntza eskatu behar izan du Ladronek. “Maginok gazteluko pasarteak egin ahal izateko bertako erakunde pribatu bati eskatu nion laguntza, eta primeran portatu ziren”.

Dokumentazio lan horren aipamena idazlearen ahotan bakarri ez uztearren, girotze hori “bereziki miresten” duela adierazi zuen Patxi Larrion historialariak. “Harritu egiten dit girotzeko daukan trebezia”, aitortu zuen. Ladronek nobela bakoitzaren atzetik “dokumentazio lan handia” dagoela gaineratu zuen.

BERAK ESANA

“Irakurleari bakerik ez ematea da nire helburua, hasieran harrapatu eta amaieran ustekabe bat emateko”



Patxi Huarteren karikatura. ARGAZKIA: D.N.

KOMIKIALDIA ZALDIKO MALDIKON PATXI HUARTEREGIN

‘Zaldi Eroa’ marrazkilariak hitzaldi bat eskainiko du gaur (20.00) elkartean

IRUÑEA. Patxi Huarte *Zaldi Eroak* marrazkien narrazioaz bi hitz komikialdia eskainiko du gaur arratsaldeko zortzietatik aurrera Iruñeko Zaldiko Maldiko Elkartean. Modu partizipatibo batez marrazkiak sortu eta egiteko teknika eta gogoetak azalduko ditu. Patxi Huarte, irunsemea, aspaldian hasi zen marrazkigintzan, garai bateko Korroko aldizkari literarioan, TMO komikian eta Euskaldunon Egunkariaren Nafarkarian, bere pertsonaiak sortuz: *Noski Jator*, *Nafarroa Kapitaina*, *bekarioa...* Patxi Huarterek Berria egunkariaren komikian beste hainbat pertsonaia, *Gizon Jakintsua eta M'Ongolo*, *Euskal Taliban Jatorra eta Yoda*, *The Organization* edo *Xaxa katua*, sortu ditu Euskal Herriko egoera sozio-politikoari buruzko bere ikuspuntuak plazaratzeko, beti ere, ironia eta umorea akuilu direla. Hori guztiori eta askoz gehiago jaso zuen *Zaldi eroa: De rerum natura* iazko abenduan kaleratu zuen komiki liburuak. >D.N.



Alberto Ladrón Arana, liburuaren azalarekin. ARGAZKIA: CHEMA PÉREZ

KRITIKA > LITERATURA

Horra hor gu denok...

HONA HEMEN GU BIOK

Jatorrizko izenburua: Anthology of stories from The Portable Dorothy Parker **Egilea:** Dorothy Parker **Itzultzailea:** Mirentxu Larrañaga Sueskun **Argitaratze urtea:** 2006. **Argitalerak:** Alberdania & Elkar (Literatura Unibertsala bilduma).

INMA ERREA

DOROTHY Parkerren ipuinok leitzean, artega moduko bat senti dezake irakurleak, narrazioak aitzina egin ahala hondamendi handi edo ezbehar izugarriren bat jazotzearen izanaren balitz bezala, eta aztoramen bat, estugarri bezain kitzikagarria, amildegi baten ertzera hurreratzea nola. Bestalde, istorio bakoitzaren lehen lerroak iraku-

rrita, aitzina egiteko beharrak harrapatuko du, ipuinaren gakoez jabetze aldera. Ipuinotan sortutako giroa ezaguna baita, mundutarra, eta aldi berean arduragarria, gogotarako bide ematen dutenetakoa. Izan ere, etxeen, pertsonaien edo egoeren deskribapen zehatz eta oparoek ez dute mozorrotzen ipuin hauen benetako mamia: pertsonen arteko harremanen azterketa sakon bezain errukigaitza.

Parkerrek zirujau baten eran ebakitzen ditu gizon-emakumeen edo gizarte-mailen arteko hartu-eman beti korapilatsuak. Eta bestela bezala egiten du. Irakurlea, hasieran aipatu katastrofe-sentipen horrek harrapatu, beldurrak airean iristen da bukaerara, eta bat-batean

arindua hartzen du, azkenean iradokitako zorigaitza gertatua ez dela konturatuta. Handik gutxira, ordea, unadura igarriko du berrero, ohar-tuko baita ipuinean kontatutakoan datzala, berez, kasu gehienetan, zorigaitza.

Kontakizunen ardatz eta zio nagusiak garai eta toki jakin eta zehatz batzuk izaki -1920 eta 1930eko hamarkadak eta New York hiria, hurrenez hurren-, harrigarria da istoriotako gorabeherak hain unibertsal suertatzea, hain klasikoak eta aldi berean hain modernoak.

Dorothy Parker, XX. mendearen lehen erdialdean New York-eko gizarte-giro sofistikatuak pertsonaia nabarmenatariko bat izateaz gain, behatzaile azitia izan zen, eta

bizi zuen giroa zorrotz bezain sakon aztertu zuen, eta idatzietan islatu. Ipuin hauetan nabarmen-nabarmenak dira Parker ospetsu egin zuten zorroztasuna, buruargitasuna eta umorea.

Guztira, 16 ipuin dira, 1923tik 1938ra hainbat berri-paper eta aldizkarietan argitara eman eta 1944an, beste hainbat kontakizun eta poemekin batera, *The Original Portable Dorothy Parker* izeneko liburuan jasoak.

Istoriario hiritar-hiritarrak dira hauek, gizarte-maila ertain eta altuetako jendearen jarrera hipokrita eta aje nagusiak agerian uzten dituztenak maiz; haietan pertsonaiekin askotariko grina, jaidura, jarrera, pentsamolde, eta senti-

menduak erakusten dituzte, betiko gai nagusiak -amodioa eta desamodioa, heriotza, bizitzaren higadura... - lagun eta osagai dituztela, bizitzaren ikuskizun distiratsu bezain krudela osatuz. Hori dena, erritmo bizian kontatua, ipuinek filmetik ere zerbait badute-eta.

Itzultzaileak, Mirentxu Larrañagak, lan bikaina egin du, istorioek, zenbait ezaugarritan bat etorrita ere, zeinek bere estiloa baitute, zeinek bere kolore eta doinua, guztiz diferenteak haien artean. Itzultzaileak jakin izan du, jakin, ipuin bakoitzari berea ematen, eta egileak adierazitakoak fidelki aldatzen. Eskertzekoa, bestalde, Dorothy Parkerren bizitza grinatsuari zein obra oparoari buruzko sarrera argigarria.